

Asier Serrano

«Historiak egia bakarra aterako du, baina beste mila egia daude»

NEKANE GONZALEZ

Ama izugarri beldurtu zitzaion bere azken eleberriko protagonista, Aitor, Asier Serrano bera (Eibar, 1975) ote zen pentsatuz. «Baina ez da hala». Lubaki, Lorelei, poesia, literatura... Jauzitik jauzira ibili da artearen xake taulan. Orain, dagoeneko bere buruaren mugak ezagutzen dituela eta, askoz ere lasaiago bizi da, bare-bare. Duela gutxi izandako istripu baten oinazeak soinean, batere oinazetik gabeko usteak birbildu ditu.

Poeta, kantugilea, idazlea. Itxuraz elitista. Eguneroko bizitzan, ordea, haur hezkuntzako irakaslea zara. Nola uztartzen dira horiek guztiak?

Jendea harritu egiten da, nire iragana eta itxura ikusita, haur hezkuntzako irakasle izan naizela jakitean. Orain, bizkarreko minez nabilenez, lehen hezkuntzan nabil. Azken batean, pribilegiatua naiz, nire afizioak ofizio bihurtzeko aukera izan dudalako. Irakas-kuntzan lanaldi murritzatuak har ditzakedanez, musikari edo idazle lanari denbora eskaintzeko moduan izaten naiz. Irakasle ikasketak egin nituen, eta beti egon naiz umekin harremanetan. Haurren mundua helduena baino askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait, eta nahiago dut euren gandik ikasi, helduengandik ikasi baino.

Eta elitista puntu hori?

Nik ez dut halakorik igartzen. Kirol jantzia soinean joaten naiz lanera, ez naiz mozorrotzen. Haur hezkuntzako zereginean, hitza eta doinua erabiltzen ditut: hitz egiten eta idazten irakatsi behar diet, baina euren hiztegi mugatu eta harrigarri horretan oinarrituta. Batzuetan, ikastetxe berri batera noanean, arraroa egiten zaie idazle edo musikari bat irakasle izatea, baina ez da harritzekoa. Euskal Herrian, idazle edo musikari askok beste lanbide batzuk izaten dituzte: idazle batzuk harakinak dira, beste batzuk garraiolariak, beste batzuk sendagileak... Nik uste dut idazle eta musikariok, askotan, elitistatik izena eta posea besterik ez dugula.

Haurren heziketan parte hartzen duzu. Haurrak omen dira etorkizuneko euskari. Nolako etorkizuna aurreikusten duzu?

Hitzak tatuatzeko dituzte, doinuak zizelkatzen. Antiheroia gorazarre egiteko urratzen du ahotsa. Pentsatzen duena ezin esan badu, hobe mutu. Zulotik irtetea du helburu. Lorelei, Lorelei.

Haurrak gaur egungo gizartearen aldatetaren ispilu garbiak dira. Ume horiek ez ezik, gurasoekin eta inguruarekin ere harremana izan behar duzu. Gizartea aldatzen ari dela onartu behar duzu. Eta aldateta horren *errudun* guztiok gara. Gu gizarte horretako zati gara, ez soilik haur horien gidari. Haurren hezkuntza ez da soilik gure lana; gizarte osoarena baizik.

Zeu ere haurra izandakoa zara.

Bai. Hiru anaietan gazteena naiz. Amak dienez, bihurria, ipurterrea eta oso ikasle txarra. Gogoan dut nola egoten nintzen irakasleari begira egon beharrean, leihotik kanpora so: mendien atzean zer ote zegoen galdezka. Etxolak egiten genituen, eta hustutako lantegi galduetan sartzen ginen. Beti bihurrikeriatan. Oso haurtzaro ederra eduki dut, zoriontsua.

Haur hori, noizbait, musikaren munduan hasi zen. Hastapena: Asier Serrano eta Hilakotz taldea.

Hilakotz taldea garajeetan eta elkartzetan zen, eta punka eta heavya egiten zituen. Gure gitarra merkeekin zerbaitean ahalegintzen ginen. Lubaki Bandaren esperientziaren ondoren, poesia errezitaldiak egiten hasi nintzen, eta baita abestiak ere. Hala, nobela antzeko bat egitea erabaki nuen, *Ane gutun galdua*, eta Hilakotzekin grabatu nuen. 20 bat lagun bilduta, maketa osatu genuen. Probak egitea gustatzen zitzaidan, eta literaturari beste formatu bat ematea nuen helburu.

«Haurren mundua helduena baino askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait»

Lorelei taldearen ifrentzuan ere, Asier Serrano.

Hilakotzekoa utzi ostean, EH Sukarrak Nortonek eta biok erreztaldia ematen jarraitu genuen, eta errezitaldi horiek talde izena hartu zuten. Disko bat ateratzea genuen helburu, eta urtebeteko epea eman genion geure buruari. Zortea izan genuen, gauzak ondo joan, eta bigarren diskoa etorri zen.

Zure musika eta literatura lan batzuen artean lotura handia dago, izenburutik bertatik hasita. Zeuk bilatu duzu hala izatea?

Beti antzeko gaien bueltan ibiltzen naiz. Nire literatura edo musika oso neurekoa izan liteke, neuk bakarrik ulertzen ditudan sentimenduak biltzen dituen, eta, azken batean, neure krisi garai absurdoei erantzuteko terapia modukoa. Jende mota jakin bat interesatu izan zait beti: galtailearen figura. Asko bidaiatu izan dudanez, era horretako jende dezente ezagutu dut; zentzabide ederrak eman izan dizkirate, gainera. Antiheroien mundua, mundu dekadentea, asko interesatzen zait. Gizartean bizirik irauteko zentzabideak behar ditut, eta pertsona horien eskutik jasotzen ditut. Lagunek ere esaten didate edonora joanda ere erotzat jotako pertsonekin bukatzen dudala hizketan.

Mundua antiheroiz josita dagoela esaten dute. Egia al da?

Hala da, bai. Edonoren atzean dago antiheroia. Bakoitza bere bizitzaren heroi eta antiheroi da, aldi berean. Bizirik irauteko borrokatu egin behar da; borrokatu gugatik, eta gure inguruarengatik. Historiak egia bakarra aterako du, baina beste mila egia daude. Ezkutututako egia horiek antiheroiek kontatutakoak dira, nahiz eta, sarri, hainbat presio edo mugagatik hitz egiteari beldur dioten.

Zure antiheroik zer egia esan nahi du, bada?

Gizarte gaixo batean bizi garela, eta oro har, gaixo jarrai dezan interes handia dagoela. Denok garela biktima, eta biktima izatea gusta-

tzen zaigula. Batzuetan, badirudi zenbait gauzari buruz ezin dela hitzik egin; eta ez hitzik ez egiteagatik, baizik eta ez konplikatzeagatik. Biktima izatea jarrera eroso da. Neure buruarekin ere oso kritikoa naiz, eta ez dut barkamenik eskatuko esatera noanagatik: erraza eta eroso da, gaur egun, beltza izatea, euskaldun izatea, euskaltzale izatea, Alderdi Popularraren alde bozkatzea... Denok uste dugu gure aintehoritasunaren barruan heroi bat badela, gauza jakin bat egiten dugulako. Eta gugatik baino gehiago, aldamenekoak bere hitza izan dezan egin behar dugu borroka. Hor ikusten dut nire egia.

Taldean heroi izan zara. Bakarka ere, gaizki ez.

Zorte handia izan genuen. Gauza serioa egitera gindoa zen, baina lehenagotik ere bageneraman maletatxo eskuan: nik idazle gazte moduan, eta Mikel Gorosabelek EH Sukarran egindako lan guztiagatik. Gezurra badirudi ere, agertokian oso lotsatia izan naiz beti, eta beraz, beste zerbaite bilatzen nuen, beste lan mota bat egiteko gogo nuen. Gitarra hartu, eta beste areto batzuetan jotzeko gogo nuen. Bakarkako lanean ere, zortea izan dut. Entzule gutxi izan ditzakadela jakinagatik, badakit oso fidela eta finak direla. Eta nik nahikoa dut horrekin.

Hitzei ahotza jarritakoa bazara ere, lagun ahotsei hitzak jartzen ez zara makala: EH Sukarra, Norton Klub, Exkixu, Gari, Tapia eta Leturia...

Horrelaxe hasi nintzen. Bere garaian ez nuen esango abestera iritsiko nintzenik. Experimentazio moduan hartu nuen, eta ondo joan zait. 150etik gora abesti idatzi ditut. Une batean, zure estiloz ere nazkatu egiten zara. Orain, konpromisoa da niretzat, eta aukeratu egiten dut. Garai batean, oso gustura ibiltzen nintzen, lagun baten eta nire arteko fusioa abesti bat izatea gauza berezia zen, eta bere doinuetarako hitzak idaztea, berriz, gure adiskidetasuna nolabait izenpetzea. Lan politik egin ditugula iruditzen zait. Nire hitzak lagun baten ahotsean entzutea ederra da. Nire ahotsa batere gustatzen ez zaidalako izango da! Kar, kar, kar.

Ez da egia izango?

Bai, bai. Grabazioetan izugarri sufritu izan dut beti. Oso kontzertu gutxitan sentitu dut gogobete naitzela, ahotsari begira. Nahiago izan

«Behin esan zidaten gizonik gogorrena eta emakumerik goxoa izan nintekeela, aldi berean»

ten dut nire hitzak beste baten ahotan entzutea.

Egia ez diren zuri buruzko gauza batzuek ere kaleratu dituzte: Prestigea, zuziaren kontua...

Bai. Ez dakit nork idatzi zituen, Interneten agertu ziren. *Prestige* auzia dela-eta kantu bat egin nuen, Galeuscarako. Horren harira-edo esan zuten erregaia jasotzen aritu nintzela... Ez dakit, agian, beste Asier Serranoren bat izango da hortik! Dena den, eskatu izan bali-date, joango nintzen, e? Jakin nuen, neure burua era surrealista batean imajinatu nuen: jantzi zuria soinean, eta gitarra jotzen. Azkenean, nahi dutena idazten dute.

Teknologia berriak, badakizu.

Bai, bai. Harrigarria da pertsona batek zure izena izorratzeko zer baliabide erraza duen eskura. Erabat doan, gainera! Jendea asko gustatzen baitzaio hitz egitea! Baina hor esandakoak baino gogorragoak esan izan dituzte niri buruz. Loreleiren garaian, esaterako, asko sufritu nuen. Nahiz eta gero beti jakiten den zein den egia.

Bigarren diskoarekin egin beharreko